

3. AKTA

2001eko otsailaren 26an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

Pasaiaiko Hirian eta Trintxerpeko Alkateordetzan, bi mila eta bateko otsailaren 26an, lehenengo deialdian eta Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian, Joseba Belaustegi Cuesta Idazkari jaun Akzidentala bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

Joseba Xabier Portugal Arteaga j.
Obdu Lorenzo de Dios a.
Ricardo del Pozo Gil de Albornoz j.
Angel OuviañaVidal j.

araz kurtsatu eta publikatu den dialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea ospatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 12:45etan, ondoren Gaizerrendako puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko akta, 2.a, 01-2-8koa irakurri eta onartzea.

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuan aipatzen den akta, Gobernu Batzordeak erabaki du bere osoan ontzat eman eta dagokion Aktaliburuan transkribatzea.

2.- 01/1 zenbakiko kontu eta fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 1/01 zka. daraman kontu-fakturen erlazioa, ZAZPI MILIOI BERREHUN ETA HOGETA HAMASEI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA BOST (7.236.265,-) pezetakoa, baina 11-0000-2001 ADO 30-01-2001 G20177937 47219 fakturan konstarazi behar da "Trintxer Kulturala" dioen lekuan "Trintxer Elkartea" esan behar duela.

3.- "Santiago Plaza urbanizatzea" obraren 7. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea "Santiago Plaza urbanizatzea" obraren 7. ziurtagiria, Obrako zuzendariak diren Luis Peña, Mario Sangalli eta Rocío Peña Arkitektoek luzatua CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA enpresa kontratistaren alde, HIRU MILIOI EHUN ETA BI MILA

ZORTZIEHUN ETA HOGEITA SEI (3.102.826,-) pezetako inportez. Hau guztia D-449/00 Disposamenduaren kargura.

4.- Udaletxeak beregain hartzen dituen Gizarte Larrialdietarako laguntza ekonomikoak. 1/01 proposamena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2001eko urtarrilaren 14an egindako proposamena eta Udalaren menpeko diren Gizarte Larrialdiko onuradunen zerrenda, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 3.882.276,- pezetako osoko inportez. Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-80/01 baimenduaren kargura.

5.- Aldundiak beregain hartzen dituen Gizarte Larrialdietarako laguntza ekonomikoak. 1/01 proposamena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2001eko urtarrilaren 14an egindako proposamena eta Aldundiaren menpeko diren Gizarte Larrialdiko onuradunen zerrenda, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 18.646.315,- pezetako osoko inportez. Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-79/01 baimenduaren kargura.

6.- Branka aldizkariari dirulaguntza.

Euskarako Batzordearen Lehendakariak 2001eko urtarrilaren 30ean egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A M K I D U

LEHENENGO.- Arnasa eta Abaraska Euskara Elkargoen laguntzaz publikatzen den Branka Aldizkariari 2.000.000,- pezetako subentzioa ematea aldizkariak bere proiektua 2001ean bete ahal izan dezan. Hau guztia 10.481.455.10.01 "Euskararen alde egindako jarduerak" partidaren eta indarreango udal-aurrekontuko A-41/01 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Pagua hurrengo eran egingo da:

- %75 = 1.500.000,- pta. akordioa hartu ondoren.
- %25 = 500.000,- pta. abenduan, balantzea eta likidazioa aurkeztu ondoren.

Pagua Branka aldizkariak KUTXAn irekita duen kontuan ordainduko da 2101.00.61.55.00.10923522 kontu korrontean.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekursoekin.

7.- Abaraskari dirulaguntza.

Euskarako Batzordearen Lehendakariak 2001eko urtarrilaren 30ean egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A M K I D U

LEHENENGO.- San Pedro eta Trintxerpeko ABARASKA Euskara Elkargoari 560.000,- pezetako subentzioa ematea bere proiektua 2001ean bete ahal izan dezan. Hau guztia 10.481.455.10.01 "Euskararen alde egindako jarduerak" partidaren eta indarreango udal-aurrekontuko A-40/01 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Pagua hurrengo eran egingo da:

- %75 = 420.000,- pta. akordioa hartu ondoren.
- %25 = 140.000,- pta. abenduan, balantzea eta likidazioa aurkeztu ondoren.
-

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekursoekin.

8.- Kirol Patronatuak 2000ko kirol dirulaguntzak banatzeko proposamena.

Kirolen Patronatuko Lehendakariak 2001eko urtarrilaren 25ean egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

2000rako hurrengo urteko subentzioak ematea onartzeaz dagoen arautegi berriaren arabera:

1.- PASAI DONIBANE KOXTAPE ARRAUN ELKARTEA.....	512.102,- pta.
2.- C.D. PASAJES.....	68.843,- pta.
3.- PASAI ANTZO TXIRRINDULARI ELKARTEA.....	88.541,- pta.
4.- ARETO FUTBOLEKO PACHARAN LA NAVARRA	65.807,- pta.
5.- CLUB DEPORTIVO TRINTXERPE.....	150.759,- pta.
6.- SANPEDROTARRA C.F.....	257.247,- pta.
7.- YOGA TALDEA.....	88.541,- pta.
8.- JAIZKIBEL MENDIZALE TALDEA.....	88.541,- pta.
9.- DONIBANEKO ARRAUNLARIAK.....	352.967,- pta.
10.- DONIBANE ESKUBALOIA.....	173.492,- pta.
11.- CLUB ATLETICO TRINTXERPE	711.199,- pta.
12.- ITSAS MENDI K.K.E. MENDI TALDEA.....	88.541,- pta.
13.- S.C.R.D. DONIBANE.....	98.113,- pta.
14.- CLUB ATLETICO ILLUNBE.....	346.985,- pta.
15.- TXANPA KIROL ELKARTEA.....	64.611,- pta.
16.- PASAI DONIBANE KOXTAPE – PIRAGUISMO SAILA.....	91.946,- pta.

17.- ONINTZA K.E.....	77.772,- pta.
18.- TRINTXER MENDI TALDEA	88.541,- pta.
19.- USOA ARRANTZA ETA EHIZA ELKARTEA.....	64.611,- pta.
20.- A.D. AZKUENEA	421.168,- pta.
21.- SANPEDROTARRA ARRAUN ELKARTEA	357.753,- pta.
22.- ITSASTARRAK MENDI TALDEA.	88.541,- pta.

GUZTIRA5.146.621,- pta.

9.- Ondare erantzukizunaz hainbat erreklamazio.

A) M^a Laura Vidal Martiñan andreak egindako kalteen erreklamazioa Euskadi etorbideko 47-49 zenbakien parean erortzeagatik.

Ikusirik M^a LAURA VIDAL MARTIÑAN andreak egindako kalteen erreklamazioa non eskatzen duen zehaztu gabeko kantitate bat bere baitan izandako kalteen ordain Pasaia udalerriko Euskadi etorbideko 47-49 zenbakien parean erortzeagatik.

Ikusirik Udaltzaingoak 2001eko urtarrilaren 29an emandako txostena eta Udal Idazkariak 2001eko otsailaren 15ean egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- M^a LAURA VIDAL MARTIÑAN andreak egindako erreklamazioa gaitzestea zeren eta estolderia ikuskaturik ez baita somatzen egoera txarrean dagoela eta helegileak estolderiarekin estropozo eginda erori zela baitio alegazioan, eta beraz, ondoriozta baitaiteke ez dagoela loturarik zerbitzu publikoaren funtzionamendu eta ustekabeen gertatu behar izan zuen erorketaren artean.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

B) Jose M^a Maestrojuan Reta jaunak egin kalte erreklamazioa bere jabetzan eragindako kalteengatik.

Ikusirik JOSE M^a MAESTROJUAN RETA jaunak egindako erreklamazioa dela eta ekindako espedientea bere jabetzan eragindako usteko kalteengatik udal enpleguak Pasai Donibanen mendia garbitzen ari zirela.

Ikusirik Zerbitzu, Sare eta Mantenimenduaren Sailak luzatutako txostenak, non ez den onartzen erreklamatuak salatutako egintzen erantzukizuna, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- JOSE M^a MAESTROJUAN RETA jaunak egindako erreklamazioa gaitzestea salaturiko egintzak ez kreditatzeagatik.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen erreklamazioekin.

10.- San Juan kaleko 114. zenbakiko eraikina konpontzeko obra kontratatzeko espedientea.

Pasaia udalerrri honetako San Juan kaleko 114. zenbakiko eraikina konpontzeko obra kontratatzeko espedientea izapidaturik, Gobernu Batzordeak 2000ko abenduaren 26ko akordioaren bidez onartu zen proiektua eta aipatu obrak kontratatzeko espedientea 20.187.938,- pezetako aurrekontuarekin, prozedura irekia duen kontratu-esleipenerako lizitazioa irekiz eta enkantearen esleipen eran.

Gertaturik 2001eko urtarrilaren 11n publikatu zen Gipuzkoako Buletin Ofizialean lizitazio-iragarpena eskaintzak aurkezteko epea irekiz.

Kontuan izanik eskaintza bat bakarra aurkeztu dela, KOBAY DEKONS, S.L. enpresarena baina Kontratazio Mahaiak atzera bota zuela Baldintza Ekonomiko Administrazioen pleguan eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik.

Kontratazio Mahaiaren proposamenez 2001eko otsailaren 7an ospatutako batzarraldian Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Kontratuaren esleipena eman gabe uztea.

BIGARREN.- Kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatuz esleitzea, prezioa gehienez ere %10 arte modifikatuz Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateratuko 141.a) artikulua araber, beti ere aurrekontuan beharrezko kontsignazioa gaitzen bada.

11.- Arrokaundieta Aterpetzeko jolas-areto osagarria egokitzeko obra kontratatzeko espedientea.

Pasaia udalerrri honetako "Arrokaundieta Aterpetzeko jolas-areto osagarria Pasai Donibaneko Jaizkibelgo uren depositoaren ondoan egokitzeko obra kontratatzeko espedientea" izapidatzeari ekinik, Gobernu Batzordeak 2000ko abenduaren 26ko

batzarraldian onartu zuen proiektua eta aipatu obrak kontratatzeko espedientea 14.968.950,- pezetako aurrekontuarekin prozedura irekia duen kontratu-esleipenerako lizitazioa irekiz eta enkantearen esleipen eran.

Gertaturik 2001eko urtarrilaren 11n publikatu zen Gipuzkoako Buletin Ofizialean lizitazio-iragarpena eskaintzak aurkezteko epea irekiz.

Kontuan izanik eskaintza bat bakarra aurkeztu dela, KOBAY DEKONS, S.L. enpresarena baina Kontratazio Mahaiak atzera bota zuela Baldintza Ekonomiko Administrazioen pleguan eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik.

Kontratazio Mahaiaren proposamenez 2001eko otsailaren 7an ospatutako batzarraldian Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Kontratuaren esleipena eman gabe uztea.

BIGARREN.- Kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatuz esleitzea, prezioa gehienez ere %10 arte modifikatuz Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateratuko 141.a) artikulua araberan, beti ere aurrekontuan beharrezko kontsignazioa gaitzen bada.

12.- San Juan kaleko 58. zenbakian dagoen lokala Gizarte Zerbitzuetarako egokitzeko obra kontratatzeko espedientea.

Pasaia udalerrri honetako "San Juan kaleko 58. zenbakian dagoen lokala Gizarte Zerbitzuetarako egokitzeko obra kontratatzeko espedientea" izapidatzeari ekinik, Gobernu Batzordeak 2000ko abenduaren 26ko batzarraldian onartu zuen proiektua eta aipatu obrak kontratatzeko espedientea 6.481.640,- pezetako aurrekontuarekin prozedura irekia duen kontratu-esleipenerako lizitazioa irekiz eta enkantearen esleipen eran.

Gertaturik 2001eko urtarrilaren 11n publikatu zen Gipuzkoako Buletin Ofizialean lizitazio-iragarpena eskaintzak aurkezteko epea irekiz.

Kontuan izanik eskaintza bat bakarra aurkeztu dela, KOBAY DEKONS, S.L. enpresarena baina Kontratazio Mahaiak atzera bota zuela Baldintza Ekonomiko Administrazioen pleguan eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik.

Kontratazio Mahaiaren proposamenez 2001eko otsailaren 7an ospatutako batzarraldian Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Kontratuaren esleipena eman gabe uztea.

BIGARREN.- Kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatuz esleitzea, prezioa gehienez ere %10 arte modifikatuz Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateratuko 141.a) artikularen arabera, beti ere aurrekontuan beharrezko kontsignazioa gaitzen bada.

13.- Obra-lizentzia, Eskalantegi, 3.

Gai hau mahai gainean geratu da sakonago aztertu ahal izateko.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 19:00etan amaitutzat eman da batzarraldia, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak nirekin eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.